

ÁR BO LA RÉ ZU HAITZ EZ





AURKIBIDEA

Obra, konpositorea, testuak	3
Argumentua eta pertsonaiak	3
Ekoizpena	4
Talde sortzailea	5
Nor dira Easo Abesbatzako haurrak?	5
Nor dira bakarlariak?	6
Nor dira musikariak?	6
Nor da Gorka Miranda?	7
Nor da Mafalda Salbio?	8
Nor da Pedro Pagola?	9
Nor da Marta García?	10

OBRA, KONPOSITOREA, TESTUAK

ZU HAITZ EZ NATURALE PARKen, Étienne Daniel konpositore frantsesaren musika entzungo duzu. Artista oso ezaguna da bere herrialdean, abesbatzetarako pieza asko idatzi dituelako eta zuzendari ere lan egin izan duelako. Bere *Gloria*, adibidez, Frantzia osoan da ezaguna. Bere proiektu koraleta-ko asko Alain Boudet maisu eta poetarekin batera egin ditu; hark hainbat poesia-elkarte eta -jaialdi sortu ditu, batez ere argitaletxe txikiak ezagutarazteko. 1981ean, elkarrekin idatzi zuten L'Arbre-Chanson obra ("Abesti-zuhaitza" edo "Abesti bihurturiko zuhaitza" esan nahi du), ZU HAITZ EZ ikuskizuna sortzeko oinarria izan dena. Obrak naturaren eta zuhaitzen bizitza du hizpide, eta hainbat abestiz eta poesiaz dago osaturik.

Egileak frantsesak direnez, testua frantsesez dago idatzia, baina euskarara itzulia eta moldatua izan da, hemen uler dadin. Kontua da itzultzea, batzuetan, sagarren eta udareen arteko batuketa egitea bezala dela, batik bat poesia itzultzea. Horregatik, ZU HAITZ EZen bameratuko gaiuen istorioa hutsetik sortu da.

ARGUMENTUA ETA PERTSONAIAK

STOP! Galdere oso garrantzitsua egin behar dizugu:

**OINAK UREZTATU
AL DITUZU GAUR?**



Oinak ureztatzea oso garrantzitsua da sustriak zaintzeko eta sano hazteko; beraz, nahitaezkoa duzu ikuskizuna hasi aurretik egitea. Baina kasu! Oinak behar bezala ureztatzeke, ureztigailu handia behar duzu, eta, ahal dela, burdinazkoa. Dena den, ez kezkatu: etxean harrakorik ez baduzu, geuk utziko dizugu bat sarreran.

ZU HAITZ EZen sartutakoan, zuhaitzek azken hitza duten munduan murgilduko zara; beraz, haiei entzuteko eta ulertzeko denbora hartu beharko duzu. Pertsonekin gertatu ohi den moduan, batzuetan besteak baino zuhaitz okerragoa topatuko dugu, edo ilea erabat harrotua duena, edo burumakur edo triste dagoena. Halakoetan, onena gure denbora eta arreta eskaintzea da, nola lagun diezaiekegun ikasteko, edo agian laguntzarik behar ez dutela ulertzeko. Zuhaitz guztiak ez dira-eta berdinak!

Oso-oso adi bazabiltza, *Magnolia grandiflora* topatuko duzu, zuhaitzen sustraiei entzuten ikasiko duzu, eta zuhaitzek eta personok komunean duguna aurkituko duzu: musikarekin eta haizearekin dantzatu egiten gara, urtaroei abesten diegu, beltzaran jartzen gara eta, tarteka, zauriak egiten ditugu azalean; eta, batez ere, oinak ureziatu behar ditugu hazteko!

EKOIZPENA

ZU HAITZ EZ, lehenik eta behin, askotariko unibertsoa da, zatika eta guztion artean sortua delako. Taularatuko duten istorioa ezagutu aurretik, Easo Abesbatzako haurek ordu asko ematen dituzte mugitzeko eta beren burua adierazteko modu berriak ezagutzeko inprobisazio-jolasak eta -jarduerak egiten, jaiki beritan gorputz osoa lutzaten duzunean bezala. Adibidez, ibilaldia egin zuten parke batean barrera, binaka: batak begiak ixita zeramatzala, besteak zuhaitzen sustrai eta azalen artean zeraman. Ondoren, sentiturikoa paperean idatzi zuten, eta ideia horietariko batzuk eszenak eta esaldiak osatzeko erabili ziren.

Agertokiko atrezzo guztia jasagarria eta adeitsua da ingurumenarekiko: gauza batzuk utzi egin dizkigute, beste batzuk etxetik ekarri ditugu, eta beste batzuk basoetatik etorri dira, ondo baino hobeto



zaindutako basoetatik. Jantziak, adibidez, Easo Abesbatzako haurek bilatu eta aukeratu zituzten, EMAÚS Gizarte Fundazioak kudeatzen duen bigarren eskuko arropa-denda batean. EMAÚSek 35 urte daramatza zabor baino natura gehiago izango duen planetan bizi ahal izateko kontzientziatzen eta

lan egiten; gizarte-ekintzako programak ere baditu. Antolatzen dituen jardueri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, haren webgunera jo dezakezue: <https://www.emaus.com>

Easo Abesbatzako haurek, era berean, mota guzietako objektuak askatasunez zein irudimenez mugitzen eta erabiltzen ikasi dute. Menderatzen gehien kostatu zitzaiena banbu-kanabera luzeak izan ziren: hainbeste mugitzen dira, batzuetan bizirik daudela dirudi; pixka bat astintzean, udako haizearen eta euriaren soinua egiten dute. Banbua ez da hemengo landarea, inbaditzailea baizik. Edozein tarte baltzen du hazteko, eta oso azkar egiten du. Azkenean, hainbestetan ukitu ditugunez, antzokiko agertokian ere hazi zaizkigu.


TALDE SORTZAILEA



Nor dira Easo Abesbatzako haurrak?

Easo Abesbatzako haurek zuhaitzen antz handia dute: ixura, kobrea eta tamaina ugariak daude. Batzuek ile luzea dute, beste batzuek motzagoa. Batzuk eguzkitara ateratzen dira, eta beste batzuek nahiago izaten dute etxean goxo geratu. Baina, beste ezer baino gehiago, Easo Abesbatzako haurek abestea dute gustuko, eta astean hainbat ordu ematen dituzte elkarrekin kantari. Horretan ere badute zuhaitzen antza, haizeak beren adarretan jotzen duenean karraska egiten baitute, baina baita haizea bera uluka jartzen ere. Easo Abesbatzako umeei, taldean abestean gain, musika-hizkuntza ikasten dute eta banakako edo talde txikitan banaturiko kantu-eskolak jasotzen dituzte; horrela, zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta gehiago gozatzen dute kantuan. Antzeko zerbait gertatzen da zuhaitzekin: zenbat eta gehiago jakin haiei buruz, orduan eta gehiago zaintzen eta gozatzen dituzu.

Nor dira bakarlariak?



Ainhoa Tabuyo, lotan ez badago, ia beti aritzen da abesten edo gitarra jotzen, edo biak batera, hori ere egin dezake eta. Bere gurasoek diotenez, hitz egiten baino lehenago ikasi zuen abesten, eta, egi esan, frogarik izan ez arren, ez dugu inolako zalantzarik. Oso txikia zenean hasi zen eskolako abesbatzan, eta, geroago, Easo Abesbatzan. Harezkero, proiektu anitzetan hartu du parte bakarlari; azkenekoz, Gontzal Mendibil kantautorearekin batera. ZU HAITZ Ezen, eszena asko bideratzen ikusiko duzu. Oso gustuko du oinut-sik ibiltzea, eta sekula ez da hotz.

Mattin Aisa donostiarra, ZU HAITZ EZeko gidarietako bat, Igel-don bizi da, baserri eta zuhaitz ugari dagoen Donostiako auzo batean; beraz, abantaila du. Txikitatik jakin-min handia izan duenez, daturik bixienak ditu buruan gorderik, elefanteek ezin dutela jauzirik egin, adibidez. Easo Abesbatzan, 9 uterekin hasi zen abesten, eta horretan jarraitzen du oraindik ere. Ainhoarekin primeran moldatzen da, eguraldia gorabehera beti bermudak jantzita ibiltzen delako, eta ez dela hotz izaten esaten du; inork ez dio sinesten, baina berari ez zaio axola.

Inork ez daki zehazki non jaio zen eta bizi den Enara Lardizabal, beti alde batetik bestera ibiltzen delako. Urte pilo bat darara Easo Abesbatzan abesten, eta, horrez gain, dantzan ere aritzen da: euskal dantza eta dantza garaikidea (dantza arunta bezalakoa, baina mende honetakoa) jorratzen ditu. Hain da malgu eta elastikoa, ezen entseguetan oinekin eusten dien partiturei batzuetan.

Lorea Lópezek bizitza erdia baino gehiago darara Easo Abesbatzan abesten, baina musika eta beste irakasgai batzuk ere irakasten ditu. Oso gustuko du agintzea, are gehiago hitz egitea eta egunean gertatu zaizkion bixikeriak kontatzea, ez direnak gutxi izaten. Batez ere, Lorea tematia da oso, eta nahi duen ia guztia lortzen du; zuhaitza izan balitz, alderantziz haztea lortuko zukeen, ziur: sustraiak buruan eta adanak oinetan.



Nor dira musikariak?

David de Oliveiraren eskuak leak bezain luzeak dira, eta bi gauza horiek oso garrantzitsuak dira pianistentzat. Easo Abesbatzan, abesten eta pianoa ikasten hasi zen, baina ondoren, ahotsa aldatu eta hatzak hazi zitzaizkionean, Donostiako Musika Eskolan ikasten jarraitu zuen, baita geroago Musikenen ere, Piano Interpretazio gradua ateratzeko. ZU HAITZ EZeko pianista da, pianoa oso ondo jotzen duelako, baina baita bere abizenak portugesez 'olibondo' esan nahi duelako ere. A!



Portugalen, bakailaoa prestatzeko 100 era baino gehiago omen dakizkitez, eta Davidek denak ditu gus-tuko, kasik euria ari denean etxean irakurtzen geratzea bezainbeste.

Nerea Quincocesek kasu handiagoa egingo dizu tam-tama jotzen baduzu, bere izenez deitzen badiozu baino. Bere lehen harremana musikarekin abesbatza batean izan zen, abesten. Pixkanaka, perkusioaren mundua ezagutzen hasi, eta orain bere etxeak museo bat dirudi, non debekatua dagoen ezer ez jotzea: panderoak, panderetak, Afrikako djembeak, Kubako kongak... Horrez gain, hiru katu ditu, jotzen edo entseatzeko hasten den bakoitzean korrika ihesi alde egiten dutenak. Hori bai, hainbestetan entzun diote jotzen, haiek ere konpasa markatzen dute beren urumaz. Nerea beti dabil esperimentuak egiten munduko leku askotatik jasotako eritmo eta sekuentziak, erroi buruz hitz egiten dituzten horiekin, kanta eta lurrak, ahotsa eta taupadak jotzen dituzten horiekin.

Nor da Gorka Miranda?

Gorka Miranda Pasaia izeneko kostaldeko herri batekoa da. Bertako portu handian, itsasontzi anitz izaten da, hala nola burdinazko dinosauroak diruditen garabiak. Lehenik, biolina eta txistua jotzen zituen herriko Musika Eskolan, eta entseatzeko itsasontziak, belaontziak eta txalupak ikusten adina denbora ematen zuen. Dena dela, azkar konturatu zen musika partekatzea eta transmititzea zuela gustukoaren. Ondorioz, Musika Hezkuntza ikasi zuen, irakasten ikasteko; Logopedia, ahotsa ulertzeko; eta Kantua, ahotsa entrenatzeko. Gero, urte askoan, hainbat abesbatzaren zuzendari aritu zen, eta haiekin munduan barrena abesten. Beti dauka pasadizo interesgarriak kontatzeko, sumendian behera zihola boten zolak urtu zitzaizkioneko, kasurako. Oinak ur izoztuz beteriko plastikozko balde batean sartu behar izan zituen, oso gauza ona zirkulaziorako, baina txarra galtzerdiak oraindik jantzita badituzu. 20 urte daromatza Easo Abesbatzan lanean, haur eta helduen zuzendari; dena den, berak dioenez, askotan ez dago alde handirik batzuen eta besteen artean. Buruan gauza pilo bat izan ohi duenez, despistatu samarra da: behin, hiru egunetaz ibili zen soinean zituen betaurrekoen bila. Azkenean, begietan ebakuntza egitea erabaki zuen eta jada ez du betaurrekorik erabiltzen; beraz, orain beste gauza batzuk galtzen ditu.



Nor da Mafalda Salio?

Mafalda Salio portugaldarra da, Lisboakoa, hain zuen ere. Hirian pertsona baino tranbia gehiago dagoenez eta aldapak ezin maldatsuagoak direnez, gurpil lukiko orga bat ere lasai asko ibil liteke bertan. Oso txikitatik hasi zen ibiltzean, jatean edo sukaldeko apalik altuenean ezkututzen diguten galleta-potora iristeko gorputzarekin egiten ditugun mugimenduak behatzen; horregatik, hazi zenean, Parisko nazioarteko eskola batean antzerki fisikoa ikastea erabaki zuen. Han, mintzatzeko eta mugitzeko hizkuntza oso ezberdinak erabiltzen dituen jende asko ezagutu zuen, baita haiengandik asko ikasi ere. Gero, ikasketak amaitu zituenean, Donostiara kasualitatez iritsi zen, baina bertan geratu da bizitzen, izozkiak jatea eta bizikletaz ibiltzea oso gustuko duenez berehala integratu baitzen hirian. 20 urte baino gehiago darama aktore-lanetan eta hainbat publikorentzako proiektuak sortzen eta garatzen. Bere ikuskizunak oso irudimentsuak izaten dira, eta gauza bakarra sekula ez du nahikoa: zergatik aukeratu dantza, musika ala antzerkia, guztiak nahas badaitezke? Gainera, azken urteotan, giza garapena bultzatzeko jarduerak egin ditu hainbat komunitatetan, non antzerki-teknikez balatzen den; izan ere, Mafalda ziur baino ziurrago dago pertsonen adierazteko modu anitzak, izan hitzak edo keinuak, errespetatzen ikasten dugunean pertsona hobekak garela.

Informazio gehiago: www.mafaldasalio.com



Nor da Pedro Pagola?

Pedro Pagola zuhaitzen, landareen eta loreen sendagilea da: hotz edo bero handiegia dagoenean, zaindu eta babestu egiten ditu; elikatu egiten ditu, sendo haz daitezten; gaixorik daudenean, botika ematen die, eta, tarteka, ebakuntzaren bat ere egin behar izaten die. Beti jakiten du bere zuhaitz eta landareek zer behar duten, baita besteek ere, txikitan ikasi baitzuen. Bere familiak lau belaunaldi darama (hots, biraitona hasi zen) naturarekin buru-belarri lanean, Viveros Pagola izeneko enpresan. Berak eman dizkigu agertokian ikusiko dituzuen banbu-zurtoin guztiak, eta zerratzar zorrotzekin haiek moztzen lagundu zigun. Gainera, burdinazko ureztagailu ikaragarri handiak utzi zizkigun, oinak ureztatzeko, bagenuen-eta beharra! Berak guez eta eguez ureztatzen ditu, urteko egun guztietan. Horrexegatik ez da sekula gaixotzen.

Nor da Marta García?

Modu asko dago Marta Garcíaak zer egiten duen azaltzeko: ideiei hitzak jartzen dizkiela esan genezake, edo ideiak hitzei jartzen dizkiela, edo dizkiela hitzei jartzen ideiak, edo jartzen ideiei dizkiela hitzak... Berdin dio, nahasi egin gara. Argi duguna da bere lana pentsatzean, irakurtzean eta idaztean datzala. Gainera, Easo Abesbatzan abesten du, eta oso gustuko du kontzertuetara joatea. Urtero, pi zenbakiaren dezimal bat ahazten zaio, baina zuhaitz eta landare askoren izen zientifikoak buruz dakizki: *Abies pinsapo*, *Citrus sinensis*, *Laurus nobilis*, *Prunus dulcis*, *Quercus robur*... Zerrenda egitea eskatuz gero, ez du atsedenik hartuko amaierara iritsi arte; beraz, zeuk ikusi.

OINAK UREZTATZERA!

